

# BESTELAKO XEDAPENAK

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 4578

*189/2012 DEKRETUA, urriaren 2koa, Frantses Errepublikari «Lagun Onari» goraipamena emateko dena.*

Frantses Errepublikak, alde batetik, bere lurraldean hartu ditu euskal herritarrak gure historiako une zailenetako batean eta horrela adiskidantza, kultura, politika eta ekonomia harremanak bultzatu ditu; eta bestetik, ETaren aurkako borrokan lagundu du eta horrek modu esanguratsuan lagundu dio Euskadiri. Horregatik guztiarengatik Frantses Errepublikari esker ona erakutsi eta gorazarre egiteko, Eusko Jaurlaritzaren goraipamen eta ohoreak emateko modua arautzen duen urriaren 22ko 236/1996 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, lehendakariak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko urriaren 2ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe xedatzen dut:

Frantses Errepublikari «Lagun Onari» goraipamena ematea.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 2an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.